



**Formulario honetako datuak Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren erregistro informatikoan sartuko ditugu. Eta horren berri jakinarazten dizuegu, 15/1999 Lege Organikoko (abenduaaren 13ko legea, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa) 5. artikuluan arautukoari jarraituz.**

## **OHARRA:**



Ondoren bete behar den dokumentuan, informazioa gorde deitzen den aukera ez da erantsi behar. Horregatik dokumentua bete aurretik, behar den informazio guztia eskura duzula ziurtatu egin behar da.

## **NOLA BETE FORMULARIOAK**

PDF dokumentuak bistaritzen badituzu zure Web-arakatzaillearen leiho batean, bertan jasotako formularioak Acrobat Reader bidez bete ahal izango dituzu, eta gero, formulario eta datuak Reader bertatik inprimatu.

### **Formulario bat betetzeko:**

- 1.- *Eskua* tresna aukeratu.
- 2.- Kurtsoarea, bete nahi duzun eremuaren gainean jarri.

Kurtsoreak / forma hartzen duenean, testua idatzi daitekeela esan nahi du. Gezi forma hartzen duenean, berriz, aukera bat egin ahal izango duzu: eremua, egiaztapen-laukitxo, botoia edo zerrendako elementua.

- 3.- Testua idatzi ondoren, edo elementu, egiaztapen-laukitxo edo botoia aukeratu ondoren, ekintza hauetako bat egin ahal izango duzu:

- *Tab* sakatzen baduzu, eremu-aldaketa onartuko duzu eta hurrengo eremura pasako zara.
- *May.+ Tab* sakatzen baduzu, eremu-aldaketa onartuko duzu eta aurreko eremura pasako zara.
- *Return* edo *Intro* sakatzen baduzu, eremu-aldaketa onartuko duzu eta uneko eremuaren hautaketa ezeztatuko duzu.

Oharra: hainbat lerro dituen testu-eremuan, *Return* aukerak hurrengo lerroa eramango zaitu; ez du eremu-aldaketa balioztatzen, ezta uneko eremua ezeztatzen ere.


- *Esc* tekla sakatuz gero, eremu-aldaketari uko egiten zaio eta uneko eremuaren aukera ezeztatzen da.



4.- Orrialde bat bete aurretik, gomendagarria da, bat, bete beharreko informazio guztia eskura duzula ziurtatzea, eta bi, orrialde horretako eremuak bete ondoren, orrialdea inprimatzea:

- *Fitxategia > Inprimatu* aukeratu.

Batzuetan, testu irekia idazteko aukera ematen duten hainbat formulariotan (Proiektuaren Memorian, Jardueren Deskripzioan e.a.), gerta liteke utzitako tokiak idatzi beharreko testua baino txikiagoa izatea, eta orrialde bat baino gehiago bete behar izatea. Kasu horietan, erreserbatutako lekua agortzen denean, alegia, betetzen ari zaren laukiaren lehen lerroa ezkutatu egin dela ikusten duzunean, honako hau esan nahiko du: idazteko zegoen espazioa agortu egin dela. Horregatik, esku artean duzun orria inprimatu egin beharko duzu. Horretarako, menu-barratik *Inprimatu* aukera hautatu eta orrialdea markatu; betetakoa inprimatua izango duzu eta ez duzu idatzia dagoena galduko. Gero, laukiaren barruan kokatu eta ESC tekla sakatu. Horren bidez, orrialdeko lauki hori hustu egingo duzu berriro, eta beraz, bertan idazten jarraitu ahal izango duzu. Errepikatu eragiketa hau, nahi duzun testu osoa laukian sartu arte.





MERKATARITZA TXIKIRAKO ZERBITZUAREN KALITATEARI BURUZKO  
UNE 175001 ARAUA EZARTZEKO ETA ZIURTATZEKO PROIEKTURAKO

LAGUNTZA JASOTZEKO **ESKABIDEA.**

2007ko uztailaren 24ko Agindua.  
2009ko martxoaren 24ko Ebazpena.

ESPEDIENTE ZK.:

ESKATZAILEA:

IFZ:

Data, eta erakundearen sinadura eta zigilua

\_\_\_\_\_, 2\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (a)

Sin.: \_\_\_\_\_



1. ORRIA  
ESP. ZK.:

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak  
 (NAN: \_\_\_\_\_. Jakinarazpenetarako helbidea: herria:  
 \_\_\_\_\_; kalea edo plaza:  
 \_\_\_\_\_; zk.: \_\_\_\_\_),  
 \_\_\_\_\_ ordezkatuz (IFZ:  
 \_\_\_\_\_. Helbidea: herria: \_\_\_\_\_;  
 kalea edo plaza: \_\_\_\_\_; zk.: \_\_\_\_\_),  
 honako hau

**ADIERAZTEN DU:**

I

Honekin batera aurkeztutako proiektuan adierazitako saltokietan UNE 175001 Araua ezarri eta ziurtatzea bultzatzeko asmoa du.

UNE 175001 Araua ezartzeko eta ziurtatzeko aurkeztutako proiektuen koordinazio, jarraipen eta balioespenerako ekintzak egiteko asmoa du, honekin batera aurkeztutako proiektuari jarraiki.

EAEn kokatutako dendetan Kalitatea Kudeatzeko Sistemak ezartzen laguntzeko eta sustatzeko programen azterketa eta balidatze ekintzak egiteko asmoa daukala.

(Markatu dagokiona)

II. Eskabide honetan adierazitako dokumentazioa erantsi du dokumentazio osagarri gisa.

**HONAKO HAU ESKATZEN DU:**

Merkataritzan kalitatea sustatzera bideratutako laguntzen programa garatzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren uztailaren 24ko Aginduan bildutako diru-laguntza eman diezaioten.

\_\_\_\_\_, 2\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(a)

Sin.: \_\_\_\_\_

**MERKATARITZA ZUZENDARIA**

**1. ESKATZAILEAREN DATUAK****PERTSONA JURIDIKOA**

	ERAKUNDEAREN IZENA:	
	HELBIDE SOZIALA:	
	IFZ:	
LEGEZKO ORDEZKARIARE N DATUAK	IZEN-ABIZENAK:	
	IFZ:	
	ORDEZKARITZAREN IZAERA:	
	JAKINARAZPENETARAKO:	HELBIDEA:
		HERRIA:
		POSTA KODEA:
	TELEFONOA/FAXA:	

- BAIMENA EMATEN DIOT** Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari eta/edo horren Lurralde Bulegoari nire ordezkatuak zerga-betebeharrak beteta izatearen akreditazio-ziurtagiria zerga-arloan eskudunak diren organoei zuzenean eskatzeko, betiere 1991ko urriaren 7ko Aginduan ezarritako kasuetan eta Aginduaren ondorengo egokitzapenetan, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargurako diru-laguntzen onuradunen zerga-betebeharrak beteta izatearen akreditazioari dagokionez. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, jakinarazten dizuegu formulario honetako datuak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren erregistro informatiko batean bilduko direla.

Data, eta erakundearen sinadura eta zigilua.

\_\_\_\_\_, 2\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(a)

Sin.: \_\_\_\_\_



3. ORRIA

ESP. ZK.:

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak,  
 \_\_\_\_\_ Erakundea ordezkatzuz, honako hau

**ADIERAZTEN DU:**

Proiektu honetan aurreikusitako ekintzetarako, laguntza-eskabide honez gain,

- orain arte ez du beste eskabiderik aurkeztu ezein erakunde publiko edo pribatutan, ezta haien laguntzarik jaso ere.
- orain arte, honako erakunde publiko edo pribatu hauetan eskatu eta/edo jaso du laguntza:

ESKABIDEAREN DATA	ERAKUNDEA	PROGRAMA	LAGUNTZA MOTA	JARDUERA	ZENBATEKOA	EMANDAKO LAGUNTZA

Era berean, \_\_\_\_\_ Erakundeak honako konpromiso hau hartu du: gaurtik aurrera 2009. urtean proiektu horretarako Inbertsioak Finantzatzeko erakunde publiko edo pribatuetan aurkezten dituen eskabide guztien berri ematea.

- Zerga-betebeharrak beteta ditu.
- Ez dago penalki edo administratiboki zigortuta diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

\_\_\_\_\_, 2\_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (a).

Sin.: \_\_\_\_\_

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

1. Interesdunek eskabidea bete eta erakunde traktorea edo fundazioa ordezkatzeko legezko ahalmena duen pertsonak sinatu beharko du. Eskabide horrek erakunde horiei buruzko informazio orokorra bildu beharko du, baita honako hauek ere:

a) Proiektuari buruzko memoria xehatua, hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

b) Erakundearen eraketa-eskrituraren, estatutuen eta erregistroko inskripzioaren fotokopia konpultsatuak.

c) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

d) Eskatzailearen ordezkatzeko-ahalordearen eta NANaren fotokopia konpultsatua.

e) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek zerga-obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzko Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan ezarritakoa betetzen denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, betiere eskatzailearen esanbidezko baimenarekin, zuzenean eskatuko die zerga-arloan eskudunak diren organoei laguntza eta diru-laguntzen onuradunek zerga-betebeharrak bete dituztela ziurtatzen duten agiriak ematea. Espedientean interesdunen baimen hori jasota ez badago, haiek dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

g) Honako alderdi hauek egiazkoak direla adierazten duen zinpeko aitortpena:

– Proiektu berarentzako beste erakunde publiko edo pribatuen aldetik jasotako laguntzak.

– Enpresa eskatzailea administratiboki eta penalki zehatua ez izatea, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez duela, sexu-arrazoiengatik diskriminazioan erortzeagatik gertatu direnak barnean hartuta, betiere emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legearen arabera, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikuluari jarraiki.



5. ORRIA

ESP. ZK.:

2.-  Erakunde traktoreek, horrez gain, honako hauek idatzita biltzen dituen dokumentua aurkeztu behako dute: parte hartzeko konpromisoa, proiektuaren barnean hartutako saltokien erakunde traktoreek sinatua, eta saltoki bakoitzaren solaskidearen izena. Era berean, zerbitzuaren Kalitateari buruzko UNE 175001 Arauaren arabera ziurtagiria lortuz gero, kalitatearen logotipoa establezimenduan, ongi ikusteko moduko tokian, jartzeko konpromisoa bilduko da. Logotipoa Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emango dio establezimenduari, establezimenduak ziurtagiria lortu ondoren.

3.-  Erakunde traktoreek beren proiektuaren barnean hartutako saltokien jarduera ekonomikoen zergaren (JEZ) alta-dokumentuen kopia aurkeztu beharko dituzte. Era berean, proiektuaren partida guztien aurrekontu banakatua aurkeztuko dute, partida bakoitzaren BEZaren zenbatekoa adierazita. Eskatzailearen gastuen estimazioa ez da aurrekontutzat hartuko.